

...eta **kitto!**

693 zkia. 2009-X-9

ASTEKARIA



Zuzendari onenari saria

KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Auzo komunitateen administrazioa
- Epebuntzak, garajeak, industriak...
- Jaurtitzearen diruagintzen transizioak

AHOLKULARITZA

- Fiskala
- Kontabilitateak
- Laborala
- Aseguruak



Ofiziala: 943 70 25 40 - Fax: 943 70 27 34
Tel: 943 70 25 40 - Fax: 943 70 27 34
Email: kein@grupokoin.com

30 min
+10 te
+10 gla

Hizkuntza- Kudeaketa enpresan

Inskripzioa (beharrezkoa):

www.imh.es - imh@imh.es

Telefonoa 943 74 41 32

IMH, Azkue Auzoa 1 - Elgoibar

Zertan arituko dira txekiar 1, katalan 1 eta 100 euskaldun IMHn urriaren 22ko goizean?

Antolatzailea

Makina Erromintaren
Institutua



Kolaboratzaileak

Hizkuntza Politika Sailburuordetza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Elgoibarko Udala
Ahize-AEK

15 hitzaldi + mahai ingurua: aukera itzazu zureak!

Administrazioen ikuspegia

EUSKO JAURLARITZA, HPS - I. Calzada
GIPUZKOAKO F. ALDUNDIA - E. Aikorta

Enpresarien ikuspegia

ADEGI - E. Zubiaurre

Europako ikuspegia

UOC / ELAN.CAT - M. Strubell
LINEE proiektua Txekia - J. Nekvapil

Multinazionalen ikuspegia

ITP - A. Cendoya / K. Izquierdo
Enpresen nazioartekotzea - A. Irizar

Hizkuntza Industriaren ikuspegia

DUALIA - J.M. Perez

Ingunura eraldatzearen kokatzea

Enpresen ikuspegia

DOBLE SENTIDO - I. Aranbarri
GARBIALDI - I. Ziarnueta (Artea)

Finantza etxeen ikuspegia

Neurgailua - KUTXA, Irizar / HPS, Aizpuru
NAFARRDAKO KUTXA - X. Erizo

Berrikuntza eta Berketaren ikuspegia


EHU / IMH Mak. Errom. Sektorean ikerketa
DON BOSCOko praktikak euskaraz
Ahalmotzea - F. Itarra (Ehuyar)
FAGOR: 2 eta, 2 kanal - J. Ruiz (Emun)

Informazio gehiago: www.imh.es



NATURAL OPTICS PLAZAOLA

Profesionalak haurren
ikusmen-osasunean



1994-1995-1996-1997-1998-1999-2000-2001-2002-2003-2004-2005-2006-2007-2008-2009-2010-2011-2012-2013-2014-2015-2016-2017-2018-2019-2020-2021-2022-2023-2024-2025

natural optics
PLAZAOLA

naturaloptics.com

> klinika kortazar

Gidabaimenak eta armabaimenak



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKTATZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnos: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGLA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

EZ HORIXEI.- Ezezkoari indarra emateko interjekzioa. "Ez horixe, ez gara joango ezertara be!".

EZ LAKO.- Parebako, bakarra, aparteko. "Hori pelikulia ez dok besterik ez lakua".

EZAGUN IZAN.- Bistakoa izan, argi egon. "Berbetan ezagun dau harek nungua dan".

ESKUTITZAK

TXOTXI

Urtebeteko etenaldia eta gero, ...eta kitto! Euskara Elkartea Sagardo Eguna antolatu du berriro ere urriko lehenengo asteburuan; indartuta etorri da egun hori eta hilabeteetako lana izan da, baina joan den zapatuan hainbat lagun eta enpresak eskainitako laguntzarik barik ezinezkoa izango litzateke aurrera egitea.

Eskerrik asko **pintxoan, basoen edo sagardotegien mahaietan izan ziren 83 lagunei;** egun osoan jo eta fuego ibili ziren, tolaleari indarra ematen, sagardoa banatzen, edalotziak banatu edo pintxoak prestatzen eta, gainera, muntaia, karga eta deskarga eta garbiketa lanak egiteko beti prest... izugarria izan zen benetan zuen lana!

Baten-Bi, Botellin, Kamarroak eta Untzaga elkarte gastronomikoetako lagunek egin zituzten txorizo, gazta eta bakailao tortilla pintxoak; gozoak benetan, handia izan zen egindako lana eta izugarri eskertzen dugu egindakoa. Berdin Peña Txinberako lagunei; goizean goizetik ibili

ziren gaueko afaria prestatzen, eta euren elkartean izan ginen langileek indarberritzeko aukera ezinhobea izan genuen euren jaki gozoekin.

Hilabete hauetan horrenbeste lagundu diguten **Oreretako lagunak** ere ezin ahaztu; eurek ekarri zuten Tolarea Eibarrera, eta eguneko sorpresa nagusia izan zen. Jakina, Pantxika astoak egindako ibilbidea ahaztu barik; eskerrrik asko **Altzubarren baserriko denei** eskainitako laguntzaren gaitik, baita Musika Eskolako **Marisol eta trikilaritaldeari**. Antolaketarako **Eibarko Udalari** eskainitako laguntasunarengatik; bereziki, **brigadako buru eta langileei** azkenengo unean izandako arazoak konpontzeagatik.

Eta, azkenerrako, eskerrrik beroenak Untzagara etorri eta gurekin bat egin zuten guztiei, txotxi-gurekin hasi eta amaitu zuten guztiei. Zapatuko eguna ezin hobeto pasatzen lagundu ziguten **eibartar eta ingurukoei... eskerrrik asko!**

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Iparraldeko gizarteetan, Lehen Mundu definiturikoan, hizkuntzan gehien erabiltzen den hitza Ni da; Hegoaldeko herrialdeetan, Hirugarren Mundu deitutakoan, Gu da gehien erabiltzen duten hitza. Hego Ameriketara indartzen diharduen mugimenduak ere ahalbidetuko du ispilu aurrean begiratu eta, norbere burua ikusi beharrean, leihotik begiratu eta gaitontzeko denak ikustea"
(Eduardo Galeano, kazetaria eta idazlea)

"25 urte geroago iraugita jaiotzen lege bati adabakia jartzen dihardute. Hori da orain 25 urte Frantziara zegoen legegria martxan jartzea; hau da, hamalagarren astera arte abortua baimendu eta hortik aurrera turismo sexuala, Holandara edo Denverreara, abortatzera. Gaur egun, Espainian emakume batek haurdunaldia eten ahal izateko erdi erotuta edo senetik irtenda dagoela onartu behar du"
(Luis Elberdin, Askabideko sexologoa)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

ONA TXARTELA

Aste honetan hasi dira ONA (Osasun Txartel Elektronik Berria, erabilera anitzekoa) txartela Eibarren tramitatzen. Txartela doan egiten dute eta eskatu ahal izateko 16 urtetik gora izatea eta oraingo Osakidetzako txartela eta NAN aurkeztea, besterik ez da behar. Txartelaren tramitazioa honako tokietan egiten dute: Pegoran (astelehenetik eguenera, 09.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.30etara; barixakuetan 09.00etatik 14.00etara), anbulategi bietan (astelehenetik barixakura, 10.00etatik 17.00etara eta 13.00etatik 20.00etara), KZ gunean (astelehenetik barixakura, 16.00etatik 20.00etara). Horrez gain, urriaren 16ra arte Untzaga jubilatuta etxean ere eskatu daiteke, 16.00etatik 20.00etara.

SAUTSIKO BIDE ERDIA ZABALIK


Sautsiko bidea ez da irekiko urte amaierara arte sare elektrikoan izandako arazoen ondorioz. Hala ere, Barrena erdialdetik Azitainera doan tartea irekiko da 60 aparkaleku egokiaraziz. Horrela, aradura-geruza, seinalizazioa eta sarrerak gauzatzean aparkalekuak eskuragarri egongo dira.

BEHEKO SOLAIRUEN DESJABETZEA IGOGAILUENTZAT

Udalak beheko solairu eta lokalak desjabetzeko araudia aldatu nahi du bizilagunen komunitateetan igogailuak ipintzeko. Lurraren Legeak eskaintzen duen aukera da hau eta hainbat Udala dira neurri hau hartu dutenak. Horrela, hilabete honetan bertan hasiko dira aldaketak bideratzen.

Kultura, heziketa eta askatasuna hizpide

GIPUZKOAKO ELIZBARRUTIAK, EIBARKO PARROKIEKIN ELKARLANEAN, KULTURA, HEZIKETA ETA ASKATASUNAREN INGURUKO IKASTAROA antolatu dute. Gaiaren aurkezpena urriaren 20an egingo dute, 19.30etan Portalean. Patxi Meabek honakoak azalduko ditu: kultura garapen sozialaren eta norbanako sozialaren zerbitzura eta horren ondorio politikoak eta heziketa eta askatasuna gizarte demokratikoan. Hurrengo hiru saioak



Jose Maria Setienek eskainiko ditu, azaroaren 9an, abenduaren 15ean eta urtarrilaren 18an. Azken saioa Joseba Alkaldek eskainiko du, otsailaren 18an.

Jose Maria Setienek hiru saio eskainiko ditu / SILBIA HERNANDEZ



Armeria Eskolan matrikulazioa gora

ARMERIA ESKOLAK KURTZO BERRIA HASI DU, ETA HASIERAKO FORMAKUNTZA ZIKLO ETA JARRAIPENEZKO ETA ZEREGINETAKO FORMAKUNTZA ikastaroetako matrikulazioan hazkuntza handia nabaritu da. Erdi eta goi-mailako formakuntza zikloetako ikasle kopuruak %10eko hazkuntza izan du aurten iazko zenbakiekin alderatuz berezitasun guztietan, baina batez ere Mantenimendu eta Elektrizitate-Elektronikan. Armeriara 28 herritako ikasleak doaz eta matrikulazioen %20a Debabarrena kanpoko da. Hau da, Armeriako bost ikasleak bat eskualde kanpoko da. Emakumeen matrikulazioa ere handitu egin da, izan ere, %11an igo da zifra. Gainera, Formakuntza Zikloetan izena eman duten %40ak D erduan eman du.

Tekniker Rolls Royce, Renault eta EADSekin lanean

TEKNIKER-IK4 IKERKETA ZENTRUAK FOREMOST PROIEKTU EUROPEARRA GIDATZEN DU, automozio eta aeronautikarako material arreratuak ikertzen dituen proiektua. Eibartarrekin batera, gainera, Rolls Royce, Renault eta EADS-ek hartzen dute parte. Horrela, eibartarrak proiektua koordinatzeaz arduratzen dira, eta beste enpresek material berrien frogak egiten dituzte.

Proiektuak 19 milioi euroko aurrekontua dauka eta 13 herrialdeetako 31 erakundek hartzen dute parte bertan. Automozio eta aeronautika sektoreetan aplikazio garrantzitsuak garatzeaz gain, makina-erremintan ere zentratzen da proiektua. Europa Batasuneko VI. Marco Programaren barruan dago Foremost, eta lau urte eta erdiko iraupena izango du.

Eibarko merkataritzarako lan-poltsa espezifikoa

GIPUZKOAKO MERKATARITZA FEDERAKUNTZAT EIBARKO MERKATARITZAK DITUEN BEHARRAK ASE-TZEKO lan-poltsa jarri du martxan. Onuradunentzat doakoa izango da ekimena; eta Gipuzkoako Merkataritza Federakuntza, Eibar Merkataritza Gune Irekia eta Eibarko Udalaren artean sinatutako akordioaren ondorio da formakuntza, lan birtartekotzea eta belaunaldi erreleboa bultzatzeko sektore ekonomiko honetan.

Lan-poltsa osatzeko helbururarekin, alderdi bitan ari dira lanean Merkataritza Federakuntza eta Eibar Merkataritza Gu-

ne Irekia. Batetik, dendetara hurbildu dira euren beharrak zeintzuk diren jasotzeko. Eta bestetik, lan-poltsaren parte izan nahi dutenek izena eman ahal dezakete, eta lan orientazio eta formakuntza prozesu batean sartuko lirarteke denden

beharretara moldatzeko. Lan-poltsaren gainean informazio gehiago lortzeko 943207694 (Jaione Leibar) telefonora deitu edo Merkataritza Federakuntzak Eibarren dituen bulego berrietara joan (Untzaga 7-3 ; Artola jatetxearen alboan).





Udalaren laguntza humanitaria Indonesia eta Filipinetara

ORAIN EGUN BATZUK INDONESIA ETA FILIPINETAN GERTATUTAKO HONDAMENDI NATURALAK DIRELA-ETA, hango gobernuak nazioarte mailako laguntza-eskera egin dute eta, deialdi horri erantzunez, Eibarko Udalak, horrelakoetan egin ohi duenari jarraituz, dirua eman du kalte-tutakoei laguntzeko.

Gizarte larrialdietarako laguntza bi horiek, Filipinetan, Ketsana tifoia eta eurite handiek egindako hondamendian, eta Indonesiako mendebalde-

ko kostaldean izandako lurrikarretan kaltetuta geratu diren pertsona guztiei laguntzeko izango dira. Emandako laguntza bakoitzaren balioa 3.000 eurokoa da eta Gurutze Goriak kudeatuko ditu. Indonesiako uholdeei lurrikarak gehitu zitzaizkion eta kaltetutakoak milaka izan direla azaldu du hango gobernuak. Filipinetan, berriz, Ketsana ekaitz tropikalak azken 40 urtetako uholde-rik handienak eragin ditu Manilan zein iparraldeko beste hainbat tokitan.

Usartzako erromeria gogoan

DOMEKAN LAGUN-TALDE POLITA BATU ZEN ARRATEN, KRABELIN JATETXEAN BAZKALTZEKO: sasoi batean domeketan Usartzan ospatzen ziren erromerietan parte hartu zutenetako askok orduko kontuak gogoratzeko aukera paregabea izan zuten. 40 bat lagun batu ziren bazkarian, tartean Juan Mari Narbaiza bertsolaria, eta primerako giroan eman zuten eguna.



Eguraldia ere lagun izan zuten Krabelinen bazkaltzera bildu zirenek. / LEIRE ITURBE

anzorik anzo



Maltzagako ermita berreskuratzeko deia


Maltzagako Miguel Moyuak helarazi digunez, *“Donostia, Bilbo eta Gasteizen komunikazio puntu hau gaur egun egoera tamalgarrin dago. Instituzioen axolagabekeriagatik, zikinkeriaz betea dago eta autobus geltokiaren aterpea ere apurtuta dauka”*. Urriaren 24a San Rafael eguna da eta sasoi batean inguru hartan ospatutakoak gogora ekarri dizkigu Moyuak: *“Aspaldi hain ospetsu izan ziren erromeriak, kantina, Ilargi taberna... Eibar, Soraluze eta Elgoibarko hainbat bikote elkartu ziren San Rafael elkarte zoriontsuen patroia ermitaren bueltan”*. Hori dela eta, datorren urriaren 24an Maltzagara gerturatzeko gonbidapena luzatzen dio joan nahi duen jende guztiari, *“diana, salda eta ardo pixka bat emango zaie, Irure auzoan hildako arimen alde otowitz egin ondoren”*. San Rafael ermitak Pablo Urangaren fresko-sorta izan zuen, baina 1974ko abuztuan piztutako suak dena erre zuen. Bizilagunek San Rafael ermita berreskuratzeko dei egin nahi diete patrimonioa zaintzeko arduradunei zein Elizari, *“izan genuen ermita berreraiki edo gure auzoan hildako arimen omenez zerbait eraiki dezaten”*.

eibar kaleka

Aginaga (Agiña) auzoa

Urko mendiaren iparraldean, Markina Etxebarri eta Mallabiarekin egiten du muga. ‘Eibarko basarrixak’ (Ego Ibarra) liburuak jasotzen duenez, 27 baserri izan zituen, baina batzuk jausi egin dira. San Miguel parrokia, San Roman baseliza eta San Idefonso santutxua eta Zubitza (Zubierrota) eta Errotatxo (Agiñaga-Errota) ere bertan daude.

Pegora kopurua: 27. Erroldatutakoak: 48.



asteko
465
datua

lagun hartzen ditu egunero Orbea kiroldegia. Eibarko Kirol Patronatoak emandako datuen arabera, inoiz baino bazkide gehiago izatera ailegatu da Patronatoa: iazko irailean baino 710 bazkide gehiago dauzka, 9.348 denera. Beraz, eibartarren %34'11k daukate Kirol Patronatoko karneta.

Zero Pobrezia kanpaina martitzenean hasiko da

URRIAREN 17-AN MUNDU MAILAN POBREZIAREKIN AMAITZEKO EGUNA GOGORATUKO DA. Hori dela eta, Gipuzkoako Zero Pobrezia plataformak, eta plataforma horretako kide den Eibarko Elkarkidetza Mahaiaik kanpaina antolatu dute. Eibarren hainbat ekitaldi garatuko dituzte datorren astetik aurrera: martitzenean hasi eta hilaren 15era arte, 'Emakumeen aurpegiak' izenburuko argazki erakusketa egongo da martxan Untzagako bertan, 19.00etatik aurrera, 'La 4ª Guerra Mundial' izenburuko dokumentala proiektatuko dute

Portalean. Eta hurrengo egunean, eguaztenean, ordu eta toki berean, 'Mujeres en tiempos de crisis' hitzaldia emango du Mertxe Larrañagak, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia irakasleak.

Kanpainaren arduradunek diotenez, "orain 9 urte, 189 herrialdetako agintariek 2015erako munduko pobrezia errotik kentzea hitzartu zuten Milurteko Garapenerako Helburuak planaren barruan". Horren harira, kanpainak lortu beharreko 8 helburu ekarri nahi dizkigu gogora, 'Miliurteko Helburuekin ez da jolasten' izenburupeko biñetekin.



Oin dala hamar urte

1999-X-8 / 288. ZKIA.



- Ojmar Elgoibarko enpresak eskuratu eban Toribio Etxebarria sarixa Enpresa Sorkuntza eta Berrikuntza atalian. Ideien atalian, Ion Barrenetxea eibartarra izan zan irabaztia, kautxua reziklatzeko sistema barrixarekin.
- Klub Deportibuaren 75 urtiak ospatzeko ekitaldixen artian, mendi batzordekuak Piriniuetan 3.000 metrotik gora daguazen 212 tontorrak egitteko erronkia bete eben, gehixenak kuadriletan eginda.
- Unibersidadera autobusez juateko, Aixola (zazpi urte zittuan orduan) eta Bikain, bertako eszisiñua eta bi urteko jardunarekin, eguazen orduan. Eurei gehitu jakozen Pesa, linea erregularrez aparteko autobus berezixekin.
- Saskibaloiko talde federaua sortu eben Eibarren, Datac Computer izenarekin, aspaldiko Alfa-Arrateren toki-xa hartzera etorri zana. Mauri Azpiazu eta Fernando Valle izan ziran lehelengo entrenadoriak.

Oin dala 365 egun

2008-X-10 / 651. ZKIA.

- Udal tasa eta zergak %5,3 igotzia erabagi eben agintarixak, kenduta Kirol Patronatuko eta zaborra batzeko zerbitzueri (azken hau Mankomunidadekuak) zegokixenak, bixak kopuru horren doblaia igo ziran-eta.
- Ekainberriren erreplikia egiñ eben Alfa Arten. Sei lagunek osatutako lantalde espezifikuak jardun eban biharrian, baiña biharrian daguazen 25 bihargiñak hartu eben parte modu batian edo bestian.
- Iñaki Del Rey motorzalia Supermotardeko Euskadiko txapeldun izan zan Miranda de Ebron denboraldiko bigarren garaipena eskuratuta. Mikel Ullena eta Jose Antonio Roigé izan zittuan lagun.
- Iosu Elejalde beterano onena izan zan Nikaraguan jokaturako 80 kilometroko lasterketan. Eibarko antxitiketariak bederatzia ordutik gora bihar izan zittuan eta sailkapen orokorreko 8.a izan zan.



Botoi bat sakatu eta etxeko lan danak egitten badetsu norbaittek, zer pentsatuko zeunke? Makiñak urtietan dagoz etxietan funtziño ezberdiñak betetzen, baiña hor be hedatzen dabiz. Badagoz etxeko lan danak egitten dittuen makiñak, pertsonen lanak hartzen dittuzten robotak.

Robota etxian sartuko zeunke laguntzeko?



ANA Mª FERNÁNDEZ
62 urte
etxekoandria

Ez neuke sartuko. Ez desta bape konbenzitzen, gaiñera etxian bi bakarrik bizi gara eta ez dogu bihar. Ez desta erakartzen be. Batzurendako erabilgarria izan leike, baiña ni ondo moldatzen naiz bakar-bakarrik. Gaiñera, zailantzak dittut hainbeste gauza egin ahal dittuanen gaiñian.



FERNANDO MEDINA
64 urte
industrialia

Momentuz ez neuke sartuko, izan be, ez dittut halako robotak hainbeste ezagutzen; lehelengo ezagutu egin biharko neukez erabili aurretik. Ez nago holako gauzen gaiñian oso ondo enteratuta, informaziño gehixago jaso beharko neuke. Halanda be, etorkizunera begira ez dot txarto ikusten.


MIREN ARANZETA
68 urte
etxekoandria

Ez. Printzipioz gure etxian ez dakagu holako gauzetarako be, gaiñera ez dogu bihar. Hori bai, gaiñerik dagan jendiandako, laguntzia bihar dabeneandako edo pertsona nagusixendako bai izango da baliagarria. Halanda be, bestela ez dot oso biharrezkua ikusten roboten erabilieria etxietan.



GUILLERMO GÓMEZ ATXA
40 urte
bihargiña

Bai, sartuko neuke. Funtzionatzen badau, behintzat, erabiliko neuke, erabilgarria bada, zergaitik ez? Ez dakat informaziño askorik honen gaiñian eta ez desta asko erakartzen be, baiña onerako zeozer bada, askoz be hobeto! Berak nere lana egitten badau, neretako mesede.



EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurrenako eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako domeetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza

BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

Zarauztarra. Enpresa eibartar baten zuzendaritzan. Espainiako 20 zuzendari onenen artean. 45 urte. Ion Ander Buenetxea da bere izena eta ALFA Taldeko zuzendari orokorra da. Saria bulegoan dauka, 'D' itxurako figura bat. Umila. Bere berbek ere umiltasuna erakusten dute: **"ALFAko langileentzat da saria"**.



ION ANDER BUENETXEA, Alfako Zuzendari Orokorra:

"Gaur egun etorkizun ona ikusten diot Alfari"

- Espainiako enpresa handien 20 zuzendari onenen artean aukeratu zaituzte. Zertan datza, baina, sari horrek?

Nik neuk ere ez nuen asko ezagutzen. Banekien iaz Juan Mari Arzaki eman ziotela saria, baina ezer gehiago. Azken lau urteetan banatu da zuzendaritza mailan 'directivosplus.com'-ek bultzatuta. Enpresa handi eta Pymeen (enpresa txiki eta ertainak) artean hamarna sari banatzen dira, eta niri lehen maila horretan aukeratu naute. Ez da, hala ere, zuzendaritza munduan gaudenen artean ematen den zerbait, ADEGI edo Merkataritza Ganbarak emandakoak bezala, baizik eta zure lankideek izendatu behar zaituzte saria lortzeko, eta horregatik da, batez ere, pozgarria niretzat sari hau jasotzea. 20 urte daramatzat zuzendari bezala lanean eta hau nire ibilbidearen esker ona moduan hartzen dut. Ezagun, lankide eta lankide ohi askok eman dizkidate eskerrak (telefono mugikorren dituen mezu ugariak erakusten ditu). ALFA ez daramat urte askorik, ez naute hainbeste ezagutzen, baina zoragarria da zure lankideen onespina jasotzea.

- Saria jasotzea nolako esperientzia izan zen?

Pozgarria, oso esperientzia polita. Madrilen jaso genuen saria ekitaldi berezi batean eta 18 saritu batu ginen bertan (saritu bik huts egin zuten). Pena izan

da aurtan, hala ere, emakume saritu bakarra egotea. Iaz 5 emakume saritu zituzten, eta aurtan epaileen artean 3 emakume egon eta hori garrantzitsua bada ere, bakarra hautatu dute. Emakume oso onak daude zuzendaritza munduan, nahiz eta oraindik lan asko dagoen egiteko arlo horretan.

- ...

Esaten ari nintzen moduan, 18 saritu bildu ginen eta harrigarria izan zen, nahiz eta sektore ezberdinetan aritu, eta adin ezberdinak eta abar izan, zenbat gauzatan egiten genuen bat. Oso antzeko pentsaera genuen denek. Sariaren kontuarekin, adibidez, liburu bat argitaratu dugu denok, 'Inguratu zaitetzazu baino hobeto' izenburua duena. Izan ere, horrela da, lana errazago egingo duzu inguruan dituzunak onak badira. Gu, zuzendariak, ez gara denean onak izan behar. Hobeto ulertzeko: zu entrenatzailea bazara ez duzu foballean onena izan behar, jokalaririk izan behar dituzu eta eurak ondo gidatzen, entrenatzen eta abar saiatu; musika-zuzendaria bazara ere, ez duzu bibolina edo tronboia hobe-

toen jo behar, zuk egin behar duzuna musika ulertu eta zuzentzea da, eta eurak onak badira, musika ona lortuko duzu.

- Adinaren kontuari helduta, saritu gazteenetarikoa izan zara.

Bazeuden pare bat gazteagoak, baina bai, helduagoak ziren gehiengoak. Normala da hori, esperientzia eta urteetan zehar egindako lana asko baloratzen delako saria banatzerako orduan. 25 urterekin hasi nintzen gerente bezala. Alaskan egin nintuen ikasketak eta handik bueltan Azpeitiko enpresa batean hasi nintzen. Ondoren Oportora, MCC-ra (8 urtez), Matz-Errekarra, Grupo Ikkorrera (5 urtez) eta ALFAra egin nuen jauzi.

- Zer beharko luke enpresa bateko zuzendariak ona izateko?

Sari-banaketan berrikeria aritu ginen gauza askotaz eta adostasuna izan zen nagusi. Gaur egun, zuzendariaren profila ez da autoritarioa izan behar. Lehen horrela zen, zigorra, mendekua, mehatxuak... erabiltzen ziren, baina orain harremanak gizatiarragoak dira. Langileek motibazio bat behar dute lan egiterako orduan, erronkak, eta

autoestima hori behar dute bezeroek eskatzen dutena hori delako, ondo egindako lan bat.

- Urte bi daramatzazu ALFAko zuzendari orokor. Askok aldatu dira gauzak orduetik hona?

Aldaketa handiak zeuden eginda aurretik, baina arlo bitan saiatu naiz aldaketa sakontzen. Lehenik, zuzendaritzako belaraldi errelebuari dagokionean. Modu eraginkorrean gauzatu dugu hori, zarata asko egin gabe. Horretarako, hemen urte gehien zeramatzenen jakinduriarekin probestu gara gazteekin nahastuz. Antolakuntza aldetik, gainera, taldea 13 enpresatan banatuta egotetik 5 negozio unitate izatera pasatu da. Horrela, sinergiak hobeto aprobetxatzen ditugu eta koordinazioa onagoa da. Bigarren aldaketa, bestetik, mundura indar gehiagorekin irten gara eta, horrela, hornitzaile berriak lortu ditugu. Modu honetan, ez dugu hemen kompetentzia galtzen eta, bide batez, bezero berriak lortzen ditugu. Errumanian dugun lantegiarekin, adibidez, ekialdera joan diren bezeroei erantzunak eman diezaikegu, besteak beste.

- Azken urteotan hemengo enpresa askok egin dute kanpora joateko bidea. Hor dago etorkizuna?

Askotan ikusi da kanpora joateko beharra, baina horrek ez du esan nahi kostuak jaitsi behar direnik eta hemen lan gutxiago egin. Bezero eta bezero potentzialen beharrak asetzea da helburua, eta horregatik fabrikatzen dira hainbat gauza hemendik kanpo. Gure estrategia ez da kostuak murriztea, gazteleraz erabiltzen den esaldiak dioen bezala, "gaurko ogia eta biharko gosea" delako. Merkatura beste baldintza batzuekin heltzea da helburua, eta ez dugu pertsona-lan murriztea planteatzen.

- Noraino heltzen da ALFA gaur egun?

Mundu osora. Europara batez ere (Espainia, Portugal, Frantzia, Suitza, Italia, Austria, Alemania...), baina baita Argentina, Venezuela, Filipinak, Estatu Batuetara... ere.

- Eibarren sortu eta garatutako enpresa da ALFA. Etorkizun eibarra dauka?

Zalantzarik barik. Hemen inbertsio handiak egin ditugu (ALFA Hogarren egoitza berria, kasu), Eibarrekin lotura handia daukagu eta hori da gure nahia. Gainera, enpresaren erabakiak

hemen hartzea da gure asmoa. 90 urte daramatza ALFAk hemen eta harro gauden horretaz. Esperientzia sakona dago hemen eta hori aprobetxatuz abiadura azkarrago bat sartzea nahiko genioke enpresari bere nortasuna galdu barik. Talde lana, umiltasuna eta esfortzua dira, Eibar Foball Taldeak bezala, ALFAk dituen balioak. Jendea hona lan egiteko gogoz etortzea nahi dugu eta lan asko egingo dugu horretarako.

- Nola eragin dio krisi ekonomikoak ALFAri?

Gogor. Aurreko sei hilabeteak gogorak izan dira, baina poliki-poliki aurrera goaz, automozioaren kasuan, adibidez. Hala ere, gure enpresa batzuk EREan daude eta guk ez daukagu kristalezko bola bat etorkizunean zer gertatuko den jakiteko, baina gogorrena pasa dela esango nuke. Gure aldetik, ahalik eta neurri leunenak hartzen saiatu gara, nahiz eta inori ez gustatu egoe-ra hau. Langileek ez daukate



errurik eta penagarria da egoe-ra. Gure lana itsasontzia ez ondotzea da eta, horretarako, neurri asko hartu ditugu, eta etorkizun ona ikusten diot ALFAri. Enpresa langileak dira, eta hau ondo badoa, eurentzat medede izango da.

**- Zuzendari Onenaren saria jasotzea horrelako sasoi batean ez da erantzunkizun handi-
goa zuretzat? Zerbait erakutsi beharra?**

Pertsona normala naiz ni, berdin etxean eta lanean, bestela ezin izango nintzelako bizi. Horrela, saria garrantzitsua bada ere, nire ibilbidearengatik eman didatela uste dut eta horrela jarraitzeko asmoa daukat. Saria-rekin, modu batean, nire lankideek nire lanean sinesten dutela erakusten da, nirekin lan egin dutenak nirekin lan egin nahi dutela (ALFAra, adibidez, aurretik nirekin egin zuten dozena bat pertsona etorri dira lanera). Zuzendariak langileentzat eredu izan behar gara, euren konfidantza lortu behar dugu, eta horretarako lan eta lan egin behar dugu. Hori bai, bakoitzak bere lana ahalik eta ondoen egin beharko du, itsasontzi batean ezin dira 3 kapitain egon, bakarra baizik.

- ...

Gainera, saria ALFAko langileentzat da. Euren eskerrak eman beharko nien, batek bakarrik jasotzen duelako saria, baina onenak izango ez bagenu, ezingo genukeelako aurrera egin. Aukera handiak daude hemen, baina baita hobetzeko gauza asko ere. Horretarako, hainbat gauzei lehentasuna eman behar zaie eta talde lana egin.

kaixo lagunak, nafarroa oinez'09
urriaren 18an izanen da
gonbidatuak zaudete!

ETXARRI-ARANATZEN

AUTO BUSak
irteera:
09.30etan,
Ego Gainetik
itzulera:
19.30etan
prezioa: 9 euro

ANTOLATZAILEAK:
J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarte
...eta kitto! Euskara Elkarte

OHARRA: autobus-txartelak hartzeko
AZKEN EGUNA urriak 14 (asteazkena)

Toribio Etxebarria, 4

● **tartak**
● **enkarguak**
etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Gurian betidanik egon da herriko alkarte zein proiektuak aurrera etara ahal izateko jaialdi benefikuak antolatzeko joeria. Horren adibide argixa da azken urtiotan ospatu izan dan Eibar Kantuan musika jaialdixa. Aurten zazpigarren ediziñua beteko dau Hego Amerikako musika oiñarri dakan kontzertuak eta azken ediziño bixak, aurrekua eta hillaren 17xan egingo dana, Deparkel Debabarrena Parkinson Elkarateak antolatu ditu. Oiñ arte egindako guztietan pasau dan moduan, aurten be Astelena frontoia betetzeko asmua dake antolatzailliak.

Eibar Kantuan musika jaialdixak sustrai senduak dauzka errotuta gurian. Eibarren betidanik Hego Amerikako musikia oso gustokua euki dogula-eta, ez da harritzekua herrixan musika estilo horri jarraituta sortutako horrenbeste talde izatia. Sasoi batian jarraitzaille mordua euki eben boleruak, rantxerak eta beste batzuk, baiña modak be bere eragiña euki eban musika munduan eta, sosiguz sosiguz, musika estilo barrixak tokixa lapurtu zetsen aurretik horrenbesteko arrakasta euki eben taldieri. Halanda be, edade bateko jendiaren artian holako musikiak oindioik 'tiroia' zekala ikusitta, hainbat talde atzera be kantatzen hastera animau ziran eta holan Eibar Kantuan izenburuarekin jaialdixa jaixo zan. Aurreko ediziño guztietan Astelena frontoiak jendez gaiñezka egin dau eta eszenarixora aspaldixan igo barik eguazen talde asko atzera be alkartzeko balixo izan dau jaialdixak. Izan be, Eibar Kantuan aitzakixarekin erdi erreti-



ruta eguazen abeslari eta musikari askok gustua hartu detse publiko aurrian jardutiari eta gaur egunian pozik hartzen dabe musika festibalian parte hartzeko inbitaziñua.



Asun Anguerak barriro be Vicente Ramírez, Alberto Alberdi eta Aitor Errasti izango ditte aldamenian.

Izen ezagunekin osatutako kartela

Urriaren 17xan, 22.30xetatik aurrera Astelena frontoiak hartuko daben jaialdixak barriro Eibar eta inguruko herrixetako ahots ezagunak batuko ditte: beste ediziñuetan parte hartu izan daben Voces y Cuerdas, Mikel Urkola, Los Camperos, Ventos de Saudade, Los Puma eta Duo Plaentxi moduko izenen aldamenian Goruntz abesbatzarena irakorri geinke aurtengo kartelien. Batek baiño gehixagok be faltan izango dau

Los Veracruz taldea. Azken talde hori osatu eben lagunak omenaldi berua jaso eben 2007xan, Eibar Kantuan jaialdixaren aurreko ediziñuan eta hori izan zan, hain zuzen be,

lan be, solera haundiko izenak ez dira faltauko ediziño honetan: Vicente Ramírez, Asun Anguera, Alberto Alberdi, Aitor Errasti, Vicente Belda, Jesús Urizar, Jose Luis Badiola...

Jesus Mari Bilbao goguan

Zazpigarren ediziño honetan be antolatzailliak badake zeñ omendu: aurten hildako Jesús María Bilbao 'Bilbo' izango dabe goguan. Bilbo Deparkel alkartekeo kidia izan zan eta, horrez gain, Sostoa abesbatzan jardundakua. Eibar Kantuan jaialdixarekin be loturia euki eban lagunak Deparkel alkartian jardun eban bittartian egindako biharra eskertu nahi detse eta, horretarako, jaialdixa aprobetxatzia pentsau dabe antolatzailliak.





Udalak lagundutako kontzertuak arrakasta haundixa euki dau beti.

Asier Serranoren**kolaborazioa****Bigfoot**


Kanadako ekialdea kotxez zeharkatzen nenbilenean ezagutu nuen Bigfoot. Ontarioko Muskoka lakuaren ertzean zegoen motel batean hartu nuen ostatu. Gero, arratsbera goibeltzen ikusi asmoz, lakuaren hegi batean eseri nintzen. "Utzi ezazu biharko bidea etzirako"; entzun nuen gibeletik. Burua jiratu eta laurogei bat urteko agure azal erre eta ximurtudun batekin egin nuen topo. Tabako gorririk ote nuen galdetu zidan. Zigarreta eta txiskeroa luzatu nizkion, ahokada luze bat eman eta berbari ekin zion berriro: "Lurra, ura eta zerua lasai daudenean tentuz ibiltzea komeni da, zerbait luzaroan geldí dagoenean bat-batean harrotu behar duelako da". Ilargia lakuan ito zen arte aritu zitzaidan agure ezezaguna ezezagunak zitzaizkidanak kontatuz. Montrealera abiatu behar nuen biharamunean, baina beste bide bati ekin nion agurearen abisuari kasu eginez. Arrazoi zuen. Sute batek Montrealerako bideak eten zituen. Aurtengo udako azken segunduak, Bigfoot izeneko agure mohikanoaren hitzak oroituz xahutu ditut... Geurean, ez da igarlea izan behar inobilizazioa bidea ez dela jakiteko.

musika**Mikel Urdangarin**
Zubia

"Zubia" diskoa Mikel Urdangarin musikariaren zortzigarren diskoa izango da. Diskoaren gorputza soinu etereo, atmosferiko eta sentsualez beteta dago. Une gozoek noizbehinka indarra hartzen dute eta intentsitatea agerian ikusten da. Badira pop joera-ko tartek ere.

**Bide Ertzean**
Leidor sessions


Bide Ertzean taldeak 10 urte bete ditu. Urteurrena behar bezala ospatzeko, jaialdi berezia eskaini zuten Tolosako Leidor aretoan. Emanaldia hunkigarria izan zen. Zuzeneko CD-DVD honetan, disko guztietako kantuak daude eta baita kantu berri bat ere. Raul Lopezek zuzendu duen DVD-an, taldeari buruzko dokumental bat ere bildu da.

**Alberto Ladrón Arana**
Ahaztuen mendekua

Iratin dabilzala, eztabaidan hasi dira Ana eta Oskar, neskak deskubritu baitu mutilak harremanak dituela beste gizonetako batekin. Liskarraren ondotik bereizi egiten dira mendian: Oskar autoa utzia duten lekura itzultzen da; Ana, berriz, ez da inondik ere agertzen. Foru Polizia hasiko da desagertzea ikertzen, baita Oskar bere kasa ere.


Raul Zelik
Lagun armatua

Liburu honetako protagonista, Alex, Bilbora itzuli da, lehenago oporrak igaro ohi zituen hirira. Itzulerak iraganarekin jarriko du aurrez aurre; lekuak, kantak, lagunak ... eta itxuraz amaierarik ez duen gatazka. Baina, batez ere, Zubietarekin jarriko du aurrez aurre. Poliziaren esanetan, egun ETako buruetako bat da.

**literatura**



ESKERRIK ASKO danori!



sagardotegi laguntzaileak:






Sagardotegi irekixa Untzagan





UNTZAGAKO PLAZA BIXAK ordu batzuetarako behintzat sagardotegi bihurtu ziran aurreko zapa-tuan, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako Sa-gardo Egunari esker. Eguraldixa be alde, ehundaka lagun animau ziran txotx egiñ eta 20 sagardotegi di-ferentetik ekarritako sagardua probatzera. Goizeko ekitaldixan, duda barik, protagonista nagusixak Ore-retatik ekarritako tolarria eta bertara botatako sagra-reri zumua etaratzeko jo eta ke, etenbarik jardun eben gaztiak izan ziran. Ikusmiñ haundixa sortu eban, baitta be, Urkizutik Untzagaraño, Musika Es-kolako trikitilarixak lagunduta sagarrak gurdixan ekarri zittuan Pantxika astuak. Txikixenak txandia eta dana itxoittek prest eguazen, astuari laztanen bat egitteko.

Geratu barik jardun eben, baitta be, egun osuan ba-natu ziran pintxo goxuak soziedadietan preparatzen jardun eben lagun guztiak eta, zelan ez, 2.000 boti-llak zerbitzatzan egon ziranak be. Eskerrik asko jai-xan parte hartzera animau ziñazien guztieri eta la-guntasuna emon deskuzuen guztieri be. Datorren urtian atzera be alkar ikustia espero dogu.



AENOR-EN ZIURTAGIRIA
LORTU DUEN BAKILAU
SEKTOREKO 1. ENPRESA

Albitxuri Poligonoa 1A-11
Tfnoak: 943 74 45 81 - 01
Faxa: 943 74 09 62
20870 ELGOIBAR

Bakarrik AMUKO BAKILAU
BASATIAREkin egindakoa

bacalaosalkorta@bacalaosalkorta.com
www.bacalaosalkorta.com

OKINDEGIA

URKO



ERMUAN ETA EIBARREN

Juan Gisasola, 4

Urkizu, 16

Guillermo

Tfnoa: 943 202 954 Mobila: 639 984 321



TEEN- AJEA



Teknologia berrien sasoi honetan internetek badauka bere lekua herrian, Karmen kalean zehazki: KZgunea. Interneten ibili eta ikasteko zentro publikoa da KZgunea, eta bere gidaritzan Laura Agudiña 25 urteko gaztea dago. Irailetik darama Eibarren eta lan asko egiteko dagoela aitortzen du.

LAURA AGUDIÑA, dinamizatzailea:

“Mota guztietako jendea hurbiltzen da KZgunera”

- Noiztik daramazu KZguneko dinamizatzaile bezala?

Irailean hasi nintzen Eibarren.

- Eta zer moduz?

Egia esan, lan askorekin. Hasieratik lan ugari izan dut, izan ere, ikastaro asko hasi ditugu eta horrek lan asko ematen du. Bestetik, ONA txartela egiteko aukera eskaintzen dugu, beraz, jende asko etortzen da hona. Sekulako ilerak sortzen dira hemen, kalera artekoak. Esan digute abenduan Errebal kalera eramango dutela bulegoa, hala ere, ordura arte hemen jarraituko dugu, Karmen kalean.

- Eibarren hasiberria zara, baina horrelako lanean lehenago aritua zara?

Bai, horrela da. Azkoitiako KZgunean egon naiz lanean Eibarrera etorri aurretik. Hangoa, hala ere, ezberdina da. Eibarkoarekin alderatuta askoz ere lasaiagoa. Han ikastaroak dira nagusia eta hemen, ikastaroez gain, azterketak, mintegiak eta bestelakoak egin be-

har ditugu. ONAren kontu honekin, hala ere, laguntza izango dut hilabetez, bestela nik bakarrik egin beharko nuke dena eta lan asko da.

- Zer da Kzgunetik eskaintzen duzuen?

Oinarrizko interneta, ONAren egin daitezkeen tramite administratiboak, mintegiak... Mintegiak ez dira egunero egiten, baina egiten direnean ordu bikoak izaten dira eta hainbat gai jorrotzen ditugu horietan. Besteak beste, 'Gmail', sare sozialak, software libre... hau da, gaur egunean bogan dauden gaiak.

- Zein motatako jendea hurbiltzen da KZgunera?


Denetarik dago. Azken aldian gazte asko hurbiltzen ari dela antzeman dut eta orain arte gehiago ziren nagusiak. Krisia dela-eta, bestetik, langabe asko etortzen dela ere nabari da. Bestetik, sare sozialen eta hauen mintegietan gurasoen presentzia azpimarratzekoa da, euren seme-alabak non sartzen diren jakin nahi baitute.

...eta kitto! Astekariak BANATZAILEAK behar ditu

Eginkizuna: ...eta kitto! Astekaria banatzea

Eskaera:

- 16 urtetik gora edukitzea
- Barixaku arratsaldeetan libre egotea
- Arduratsua izatea
- Euskera ondo jakitea ezinbestekoa



Izena emateko deitu 943 20 09 18 telefonora edo pasatu gure bulegoetatik

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



UTILES Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANICADO, S.L.

SPK - Zeramika, silizioa

ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak

ROY - Diamante eta boraxezko harriak

Eibarko I. Gazte Lokalen Arteko Txapelketa martxan

Gazteen bilduleku bihurtu dira herriko denda zahar, garaje, fabrika itxi eta biltegiak. Parke eta tabernen alternatiba, lokal hauek gazteen bigarren etxe bihurtu dira (lehen etxe askoren kasuan). Horretaz baliatuz, ...eta kitto! Euskara Elkartek I. Gazte Lokalen Arteko Txapelketa antolatu du.

Euren aisialdiaz gozatzeko biltzen dira gazteek lokalean. Berriketan, jolasean, pelikulak ikusten edota musika entzuten, orduak eta orduak igarotzen dituzte Eibarko gazteek lagun artean, lokalean babesean, kanpoan gertatzen denetik at. Ez dira antisozialak, baina euren txokoa daukate eta euren bizimoduaren parte bihurtu diren joera eta ohiturak hartu dituzte.

...eta kitto! Euskara Elkartea, "ikusirik gazteak lokalean biltzen direla euren aisialdiaz gozatzeko, eurengana hurbildu gara". Herriko hainbat lokal

ezberdinetan euren asmoa igorri ostean, ..eta kitto!-k lau lokalen oniritzia jaso du, "baina gure nahia egitasmo hau sendotzea izango litzateke urteak pasa ahala".

Izen-ematea zabalik

Eibarko I. Gazte Lokalen Arteko Txapelketa lokalean egiten diren lehiaketetan egongo da oinarrituta, hau da, horietan egiten diren joku eta abarretan. Besteak beste, Play Stationean, ping-pongean, futbolinean, mus-ean, tutean... arituko dira lehiaketan parte-hartzen dutenak.

Lehiaketan toki eta egutegiak


zehazteke daude oraindik, baina aurreratu daiteke hauek parte-hartuko dutenen lokalean egingo direla, txandaka batetik bestera mugituz. Gainera, egun ezberdinetan egingo dira, hilabete bakoitzeko barixaku edo zapatuetan. Izan ere, lehiaketek hilabete eskaseko iraupena izango dute, baina, era berean, jarraikortasuna denboran. Horrela, Gazte Lokalen Arteko I. Txapelketa urriaren 16an hasiko da eta azaroan izango du amaiera.

Izena-emateko epea, bestetik, irekita dago martitzenera arte, urriak 13. Behin parte-hartuko dutenen zerrenda

prestatuta, egutegia egingo da, lehiaketan lekuak zehaztu eta zer egingo den. Horretarako, herriko hainbat lokalean izena emateko fitxak kokatu dira, baina onena ...eta kitto! Euskara Elkartek Urkizun duen egoitzatik pasatzea da, bertan edozein azalpen eman go delarik. Aipatu, bestalde, izena emateko 18 urte baino gehiago eduki behar direla.

Sari "potenteak"

Antolatzaileen asmoa ahalik eta lokal gehienek izena ematea da. "Irabazleek pertsonalki sariak jasoko badituzte ere, lokal bakoitzak ere jasoko du berea irabazteagatik". Sariak, bere aldetik, "potenteak" izango dira, nahiz eta asmo nagusia lokalean arteko nolabaiteko dinamika sortzea izan. Gainera, txapelketari amaiera emateko jaialdi bat antolatuko da eta final handia jokatuko da bertan. Horrela ekingo zaio Eibarko I. Gazte Lokalen Arteko Txapelketari, denboran luzapena izatea espero dena, eta horretarako edozeinen ekarpenak eskertuko dira.



Urriaren 16an hasi eta azaroaren amaierara arte iraungo du lehiaketak.

La Movida eibarresa
Kirola atseginez
egunero Borja Rodriguezekin,
arratsaldeko 3etatik 4etara

90.7 Fm



Cuevas garaile Zumarragako herri-lasterketan

GOIERRI GARAIAKO EIBAR-KO ATLETA TALDE HORREK ANTOLATZEN DUEN proba irabazi zuen. 150 bat atleta izan ziren parte-hartzen eta hamar kilometro inguruko ibilbidea 32 minutu eta 35 segundotan bete zuen. Bere atzetik sailkatu ziren Ruben Lanz eta Juanjo Igarzabal. Nesketan, Ainhoa Sanz izan zen irabazlea, Carmen Perearen aurretik.

Azitainen lehen garaipena

ARETO-FOBALLEKO GURE HERRIKO ORDEZKARIAK 3-2 irabazi zion Zurt Tabernari, Emanuel (2) eta Agirreren golekin. Atsedenaldira, 1-2 galtzen joan ziren eibartarrak, baina azkenean lortu zuten, izandako aukera guztien artean, beste bi gauzatzea. Asteburuan partidu zaila izango dute, Cerámicas Nogales liderra bisitatuko baitu.



Gai izango da Arrate berriro Ciudad Real gainditzeko?

ZAILA IZANGO DA IAZKOA ERREPIKATZEA, BAINA ARRATEK INDARBERRITUTA ekin dio aurtengo denboraldiari eta emaitza onak dihardu bateratzen. Domekan jokaturako azken jardunaldian, 29na berdintzea lortu zuen Alcobendasen kantxan, bost minuturen faltan hiru golengatik zihorean; antzerako zeozer eskuratu zuten Logroñon ere lehenengo jardunaldian eta horrek asko esan nahi du taldeak ipintzen duen gogoari dagokionez.

Ciudad Real sailkapeneko liderrak, bestalde, garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Alemanian eguaztenean eta beti bezain indartsu jarraitzen duela erakutsi du beste behin. Hala ere, iaz lortu bazen, zergatik ez oraingoan? Partidua bihar jokaturako da Ipuruan, arratsaldeko 19.00etan hasita.

Behe mailako taldeak garaile

1. Nazional mailako Arratek 29-25 irabazi zion Ereintzari azken asteburuan eta, ia betiko lez, ju-



Ciudad Real azken urteotan txapelketa gehien irabazi dun taldea da.

benil eta kadete mailetako taldeek irabazle izan ziren; oraingoan Zarautzen aurka jokatu zuten eta 31-21 eta 34-24 irabazi zizkieten kostaldekoiei. Asteburuan, 1. Nazionalekoak Atarrabian jokaturako du, hango Beti Onak aurka. Eta gazte talde biak Erreterian jardungo dute, Ereintzaren aurka.

Eibarko rugbilariek ezin izan zuten puntuatu Bartzelonan

OHOREZKO B MAILAKO LEHENENGO PARTIDUA JOKATU ZUEN DOMEKAN EIBAR RUGBI TALDEAK Bartzelonan eta, talde igo berrien arteko norgehiagokan, eibartarrak puntu barik bueltatu ziren. Vall d'Hebron domeka eguer-



dian jokaturako neurketan, 17-5eko emaitzarekin joan ziren atsedenaldira eta amaieran 27-15ekoa islatzen zuen markagailuak. Beti atzetik joan arren, eibartarrek ez zioten aurpegia galdu partiduari eta sentsazio onak laga zituzten, kontuan izanda gainera baja batzuk ere bazituztela. Hurrengo partidua Unben jokaturako dute, hilaren 25ean, Vigoko taldearen aurka.

Hamabi urte geroago...

...nesken taldeak partidu ofiziala jokatu zuten; oraingoan Iruñeako La Unica taldearen zelaian. Emandako irudia lortutako emaitza (48-0 galdu zuten eibartarrak) baino askoz hobea izan zen eta "putre beltzak" gogotsu daude hurrengo partidua jokatzeke: neurketa hori hurrengo asteburuan izango da, Unben, Atlético San Sebastianen aurka.

Bestalde, Debako hondartzan, Eibar Rugby Taldeak antolatutako eskola rugbiko Gipuzkoako txapelketaren 1. jardunaldia jokatu zen zapatuan, infantil eta alebin mailetako taldeekin: infantiletan, eibartarrek partidu bi irabazi zituzten eta bakarra galdu; eta, alebinetan, beste bi irabazi eta hirugarrena galdu. Eibartarrek batera, Bera Bera, Atlético San Sebastian, Hernani, Arrasate eta Zarautz jardun zuten lehen.

Urbat-Urkotronik gero eta handiago

WATERPOLO ESKOLA SORTZEKO BIDEAN, KADETE ETA INFANTIL MAILAKO TALDEAK sortu nahi ditu aurtengo Urbat-Urkotronik. Senior taldearen jarduna osatzeko, iaz jubenil mailako taldea sortu eta gero, aurtengo beste jauzi bat ematea espero dute Urbaten eta, kadete eta infantil mailako taldeekin batera, emakumeena ere osatzeko ahaleginean dihardute. Talde hau eskualdeko lehenengoa izango litzateke, batez ere Leioako nesken taldearen igoeraren oihartzuna

aprobetxatzeko. Guzti horri itxura emateko, Davide Cerchi Italiako entrenatzailea fitxatu du taldeak. Horregatik, aurreko zapatuan hasitako ate zabaleko jardunaldiekin jarraituko dute bihar eta hilaren 17an, Orbea kiroldogian 14.15etan nahi duena gerturatu eta kirol hori ezagutzeko aukera izan dezan.



Davide Cerchi italiarrak entrenatuko du taldea.

Eibar etxetik kanpoko lehenengo garaipenaren bila

ORAIN ARTE IKUSI DENAREN ARABERA, EZ DU ZELAI ERRAZIK IZANGO EIBARREK MERKATONDOAN, han jokatuako partidu biak irabazi baititu Izarrak (1-0 Leonesari eta 4-0 Zamorari). Eibartarrek, bestalde, Miranda de Ebron berdintzea lortu bazuten ere, gero galdu egin dute Ponferradan eta Vigon. Eskerrak etxeko partiduak aurrera atera dituztela, arazo nahikorekin kasu bazuetan. Partidua domekan jokatu da, 17.00etatik aurrera, eta aukera polita izango dute eibartarrek hiru puntuak Eibarrera ekartzeko, aurrean izango duen taldea mailara igo berria baita.

Justo Lillok taldea laga du

3. mailan jokatzeko duen Eibar B taldeak, bestalde, arazo berri batekin egingo du topo, Justo Lillo prestatzaile fisikoak taldea laga baitu arazo pertsonalengatik. Aitor Iturbek zuzentzen duen



taldea saikapeneko azken postuan dago, orain arte partidurik irabazi gabe, azken aldian hainbat berdindu baditu ere. Nesken talde nagusia, bestalde, saikapeneko 5. postura jaitsi da Lagunakekin 4-1 galdu eta gero. Aurreko asteburuan Las Palmaseri Unben irabazi ostean, oraingoan ez dute zorte askorik izan.

Usobiaga Espainiako txapelkun

ESKALADAKO TXAPELKETA BERRI BAT ESKURATU DU eibartarrak Sevillako roko-dromo batean. Ehun puntu eskuratu zituen Patxi Usobiagak eta bere atzetik sailkatu zen Ramon Juliánek 80 eta Eduard Marín 3. sailkatutakoak 65. Ez da lehenengo aldia Usobiagak txapel hori irabazten duela. Emakumeetan, Andrea Cartas andaluziarrak hartu zuen Irati Anda iazko irabazlearen lekukoa.



German González Portugalgo rally historikoan

ASTELEHENEAN HASI ETA BIHAR AMAITUKO DEN PROBAK 1.700 kilometro ditu, kronometraturako 44 tramotan banaturakoak, eta espezialitateko nazioarteko egutegiko lasterketarik garrantzitsuenetakoa da, Montekarloko rallyarekin batera. Escudería Eibarko German Gonzálezek Carlos Padilla kanariarrekin osatuko

du taldea eta 1976ko Lancia Beta Montecarlo batekin hartuko du parte. Saikapeneko goiko aldean ibiltzeko asmoa dute biek, iaz ere Germanek, Iñaki Barreko barakaldotarrarekin taldea osatuta, 14. postuan sailkatu baitzen. Probak munduko txapelketako ibilbide mitikoak berreskuratzen ditu Viseu, Cascais edo Arganilen.

Pelotariak garaile Kiroldegian

ASTEBURU GOZOA IZAN ZUTEN KLUB DEPORTIBOKO PELOTA BATZORDEKO ORDEZKARIAK eta, horrela, seniorretan, buruz-burukoan Bengoetxeak 22-4 irabazi zion San Sebastian Hernaniko ordezkariari eta, binakakoan, Etxaniz-Egaña bikotea Azpeitiko Otamendi-Murgiondo baino gehiago izan zen oso partidu borrokatuan (22-18); Egañak ikaragarriko partidua egin zuen. Agirresarobe-Lantz jubencil mailako bikoteak emaitza berarekin, hau da, 22-18 irabazi zion Idiazabalgokoari. Kadeteetan, bestalde, andonegi eta Ruizek osatutako bikoteak 14-22 galdu zuen Antzuolan bertako ordezkariekin.

Pedalaren Eguna arrakastatsua

DOMEKA GOIZEAN PEDALAREN EGUNA EGIN ZEN. Egitaraua 09.30etan hasi zen, mountain-bike irteerarekin; gero gaztetxoenen ordua izan zen, 11.30etatik aurrera. 8 eta 10 urte artekoek buelta bi eman zioten erdialdean osatutako zirkuituari eta 10-12 urte artekoek beste hiru itzuli. Amaitzeko, ginkana egon zen.



EMAKUME ETA GIZON MODA

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 fax: 943 202564

Hirien aurretik herriak zeuden, eta hauen aurretik baserriak. Hor diraute askok, mendien paisaian txertatuta. Urteak, hamarkadak edo mendeak badituzte ere, ez dira zaharren kontuak, eta horren adibide da Josu Gil 30 urteko eibartarra. Baserritarra da bera. Baserritar gaztea.

JOSU GIL, baserritarra:

"Baserria gogorra denaren mitoa apurtu nahi dugu"


- Nola heldu da zu moduko gazte bat baserritar izatera?

Orain dela 8 bat urte Sosola baserriko jabea ezagutu nuen. Bere ondoan izan nintzen haren bizimodua eta abarrak ezagutzen eta, hango andrearen heriotzaren ostean, bakarrik gelditu zenez, bertan laguntzen hasi nintzen; izan ere, zaila da batek bakarrik baserria eramatea. Gizonak ogia egin eta nik Eibarren banatzen nuen, baina pixkanaka gauzak ikasten joan nintzen. Ogia egiten ikasi nuen eta 40 bat ardi erosi genituen (gero gehiago), gazta egin eta saltzeko. Orain gutxiago egoten naiz han, nire kontura hasteko asmoa daukadalako. Lursail bila nabil auzak erosi eta gazta egiteko, baina oztopo asko jartzen dizkizute, izan ere, oso garestia da bai lursaila, bai baserria erostea.

- Nolakoa esango zenuke dela baserriko bizitza?

Edozeinek esango luke gogorra dela, baina mito hori apurtzea nahiko nuke. Gogorra da, noski, baina gogorra da baita ere 05.00etan tailarrera joateko altxatzea. Baserrian bakarrik egonez gero bai da gogorra, oso lotua delako. Beraz, guk aldarrikatu nahiko genuke baserriak 2 edo beste hainbat lagunaren artean hartzea txandaka lan egiteko. Bestalde, alde positiboak ere baditu baserriak. Naturaren eritimoaren arabera bizi zara, urtaroen arabera. Baserritarak orain, adibidez, negua noiz etorri irrikaz daude deskantsatzeko, udan zehar lan ugari egin baitute. Hori kalean ezin liteke ulertu, argi artifizialekin egunak beti izan daitezkeelako luzeak.

- Zu bezala gazte asko bizi da baserrian?



Baserriera joan nintzenezan esperantza neukan jendeak nire eredia jarraitzea, baina ez zen horrela izan. Arrazoiaren artean hezkuntzarena dago, izan ere, ez digute erakusten baserriko bizimodu bat dela, beraz, arlo horretan lan egin beharko litzateke. Bestetik, erakunde eta administrazioek baserriko bizitza bultzatu beharko lukete.

- Nola ikusten duzu baserrien etorkizuna?


Bide bi antzematen ditut. Batetik, kaletik baserrirako bidea egitea lur erosketa kolektiboaren bitartez. Iparraldean, adibidez, gazteek proiektu bat erakutsi eta onartua izaten bada, elkarrekin osatzen dutenek kuota bat jarri eta gastuen kargu egiten dira, baserrira doanak alokairua ordainduz. 15 bat gazte joan dira baserrira horrela. Bestetik, baserrien transmisio edo erreleboa egongo litzateke. Baserria utzi nahi dutenek baserria beste batzuen esku lagatzea izango litzateke hori. Hor erakundeek izan beharko lukete lana, baserria utzi eta hartzen duenei laguntzeko.



Eskuila metalikoen hiztegia aurkeztu dute

EGUAZTENEAN AURKEZTU ZUTEN PORTALEAN 'ESKUILA METALIKOEN HIZTEGI TEKNIKOA'. Jaz-Zubiaurre enpresak 2007an ekin zion Euskara Planari eta, horren harira, lantegian Euskara Batzordea eratu zuten. Beharginek osatutako batzordearen lanaren emaitza dira, besteak beste, beharginak euskaraz trebatzeko egin dituzten hainbat ikastaro, enpresak erabilitako idatziak elebidun izatea edo lantegi barruko errotulazio osoa euskaraz idatzita egotea. Hiztegia ere batzorde horren inguruan sortutakoa dela azaldu zuen Eduardo Zubiaurre lantegiko zuzendari orokorrak. Aurkezpen ekitaldian


Fernando Larreategi eta Jose Manuel Urrutxua, hiztegiaren egileetako bi izan zituen aldamenen eta baita aita duen Javier Zubiaurre. Azken hau izan da hiztegiaren bultzatzaile nagusia eta, gaur egun gaixorik egon arren, hiztegiaren sorrera prozesu osoan lan handia egin duela azpimarratu zuten beste egile biek. Hiztegia osatzeko orduan ...eta kitto! Euskara Elkartearen eta Serafin Basauri euskaltzalearen laguntza izan dute. Tailer barruan erabiltzeko osatu badute ere, nahi duenak internet bidez hiztegia jaisteko aukera dauka, enpresaren webguneko Euskeraren Txokoa atalean.



JOSE ANTONIO GONZALO



MIKEL OROZKO



ANGEL BOLUNBURU

Argazki erakusketak urrian

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAK HAINBAT ERAKUSKETA ANTOLATU DITU URRIRAKO: Mikel Orozkoren 'Berlin in Furs' izenburukoa El Ambigú tabernan ikus daiteke, Jose Antonio Gonzalo Hernándezen 'La vieja Praga' Portalea tabernan eta Deporren, berriz, Angel Bolunbururen 'Urapapinak' dago martxan.

Musika Eskolarekin bat egiteko gonbidapena

EGUAZTEN EGUERDIAN ESKAINITAKO PRENTSAURREKOAN, JUAN BAUTISTA GISASOLA MUSIKA ESKOLAKO ORDEZKARIEK bertako bandarekin zein abesbatza ezagutzera gerturatzeko gonbidapena luzatu zieten musikareren arlo horretan interesa duten guztiei. Astelehenean zabalduko dute izena emateko epea eta ikasturte osoan zehar bandarekin zein abesbatzarekin bat egiteko aukera izango dela azaldu zuten. Elena Martin eskolako zuzendariak esandakoren arabera, abesbatza bi daude Juan Bautista Gisasolan: *“9 urtetik aurrerakoei zuzenduta dagoen abesbatza eta urtebete martxan daraman beste abesbatza, 16-23 urte bitarteko gazteek osatzen dutena. Horiek ETB-ko ‘Oh happy day’ saioan jardun zuten taldekoak dira eta mutilak gustura hartuko genituzke”*. Horrez gain, ganbera-orkestran parte hartzeko musikariak ere ongietorriak izango direla adierazi zuen Maite Arroita-jaregi irakasleak. Orkestran zenbat eta jende



Gaztekoen abesbatzarako mutilak batzea nahi dute. / JOSE VALDERREY

gehiagok parte hartu, orduan eta eskaintza zabalagoa izan daitekeela azaldu zuen eta *“errepertorio erakargarria osatuta”* jendea orkestrara erakartzeko asmoa dutela gehitu zuen. Entseguak barixaku arratsaldetan, 19.15etatik 21.45etan izaten dira.

Sostoaren inguruko erakusketa



GAUR ARRATSALDEAN, 19.00-ETAN, INAUGURATUKO DUTE SOSTOA ABESBATZAREN XXV. urteurrenaren inguruan antolatutako erakusketa, Portalean. Hilaren 25era arte zabalik egongo den erakusketa martitzenetik domekara bitartean bisitatu daiteke, 18.30etatik 20.30etara.

Sanmiguelak giro ederrean

AGINAGA AUZOKOEK ETA ASTEBURUAN BERTARA GERTURATUTAKOEN ONDO BAINO HOBETO OSPATU ZITUZTEN San Miguel jaiak. San Miguel eguna asteburuan izanda ere, zapatuan eta domekan pilatu ziren egitarauko ekitaldi nagusiak: eguraldia lagun, danerako tartea izan zen: besteak beste, meza, herri-kirolak, umeendako jokoak, paella-jana eta erromeria izan ziren protagonista.



Kaleetan Kantuz, sasoi betean

DEBABARRENEKO ESPERIENTZIA ESKOLAN JARDUNDAKOEN EKIMENEZ SORTUTAKO Kaleetan Kantuzekoak geratu barik dabilta. Aldameneko argazkia urriaren 3an Gernikan ateratakoa da, beste hainbat herritako abeslariarekin batera eibartarrek egindako topaketako irudia. Aurreko astean, berriz, Expodintsu nagusien azokan abesten izan ziren. Eta gaur arratsaldean San Andres elizako lokaletan entsegua egin ondoren, bihar Untzagan elkartzeko dira, 19.30etatik aurrera herriko kaleetan kantatzen ibiltzeko.

laburrak

...ETA KITTOI-KO LOTERIA SALGAI

Urteroko moduan, ...eta kitto! Euskara Elkarrekin Gabonetako Loteria salduko du. Hemendik gutxira herriko hainbat salmenta puntutan loteria erosteko moduan ipiniko da, baina oraingoz elkarrekin bulegoan baino ezin izango da erosi. Aurten 02.441 zenbakiarekin jokatu da.

TOPALEKUKO ERAKUSKETAK

Astelehenean, hilaren 12an erakusketa berria zabalduko dute Topalekuan: Clement bergararraren argazkiak hilaren 20ra arte ikusteko aukera izango da eta, erakusketa hori amaituta, beste bergarar baten argazkiek hartuko dute erreleboa (Truco-renak). Esther Fernández de Maruri-ren margo lanak, berriz, iragarritakoa baino egun batzuk geroago ipiniko dituzte ikusgai, azaroaren 6tik 15era.

EXFIBAR

Azaroa amaieran urtero antolatu ohi den Exfibar erakusketa filatelikoak aurten 40. edizioa beteko du. Urtero, erakusketarekin batera, zigilu-markatzeko berezia prestatzen dute Arrate Filatelia Elkarrekin eta aurtengo edizioan erabiliko dutena Estaziño kaleko tren geltokiari eskainitakoa izango da.



Mikel Larreategi

Globo-sondak

Atmosfera ikertzeko erabiltzen ditue aientzialarixak globo-sondak (edo zunda-globoak). Neurgaillu batzuk ipiñi, gas batekin bete eta airera jaurtitzen ditue lurretik altura jakin batera dagozen atmosferako kondiziñuak zein diran jakituko. Geure agintarixak be holako gauzak egittera ohittuta dagoz. Hurrenekuak, gaiñera, egunkarixak erabiltzen ditue horretarako: "cartas al director" edo "la mirilla" moduko atalak aprobetxautu, gure herrixan zer egin leikian sugeritzen agertzen diran kartak geure agintarixak eurak idatzitakuak dira. Eta, eurak idatzitakuak ez badira, eurak bultzatutakuak bai behintzat. Estaziño kale osteko kaliakin pasau zan eta, oin dala astebetetik, autobus geltokixarekin be bai. Inork ezer esan aurretik, hor urten dira Errebaleko autobus geltokixaren inguruko eritxixak batera eta bestera. Agintarixak be segiduan urten dira, "herrixari entzuten", Errebalerako beste proposamen batzuk egitten. Zuek egindako proposamenak siñistia nahi dozue? Errebalen "agindu" zenduen fotomontajia eta gero pasau dan dana ikusitta, zelan eukiko dogu ba konfiantza zuek proposatutako ezertan? Junixuan aldaketia euki neban hizpide; oinguan bebai. Datozen udal hauteskundietarako herri plataforma bat aurkezteko biharra bati baiño gehixagori entzun detsat. Horixe izango litzake azkenengo urtietan herrixan pasau diranendako erantzun egokixa. Alkategaixa topau bihar. Hau be globo-sonda bat izango ete da?

Hizkuntzak ikasteko aukera eskaintzen da liburutegian

HIZKUNTZEN AUTOIKAS-KUNTZARAKO PROIEKTUA AURRETIK HASITA BAZE-GOEN ERE, Juan San Martin liburutegian bultzakada handia eman zaio proiektu honi. Kutzak 8.000 euroko diru-laguntza eman dio liburutegiari eta Mari Jose Telleria Euskara eta Kultura zinegotziaren berbetan, "horrek beste dimentsio bat ematen dio proiektuari".

Jasotako laguntzari esker, hizkuntzak ikasteko bide berriak ireki dira eta, norbaitek hizkuntzaren bat ikasten jardun eta ikasitakoari eusten laguntzeko, hainbat hizkuntzatan idatzitako liburuak eta nobelak aurki ditzake. Horrez gain, ikus-entzunezko materiala ere eskuragarri dago: VHS zein DVDak maileguan hartzeko aukera dago eta, horrez gain, umeentzako aproposak diren ipuinak CDan hartzeko eskaintzen dute. Liburutegiak 2.573 dokumentu dauzka, hizkuntzak ikasi nahi duen edozeinentzat eskuragarri. Horietatik 19.945 ingelesa ikasteko baliagarriak dira, 205 frantsesa ikasteko, 199 arabierarako, 73 italerara-

ko, 56 alemanierarako eta beste hizkuntza batzuk ikasteko 95 gehiago daude.

Liburutegia interneten

Gainera, aurreko asteaz geroztik Juan San Martin liburutegiari buruzko informazioa interneten kontsultatzeko moduan ipini dute www.bibliotecas-publicas.es/eibar webgunean. Bertan, liburutegiarekin lotutakoak (informazioa, agenda, azken berriak, katalogoa) aurki daitezke, "baina gauza gehiago sartzen joango gara". Zentzu horretan, hizkuntzak ikasteko gida ere bertan azaltzen da. Webguneaz gain, bloga ere ireki du sarean liburutegiak (eibarkoliburutegia.blogspot.com edo bibliotecaieibar.blogspot.com). Bertan liburutegiarekin lotutako datuak, egutegia, ordu-tegia eta albiste berriak (jarduerak, nobedadeak, jendearen iradokizunak...) agertuko dira.



Juan San Martin liburutegiari buruzko informazioa izango da Interneten. / EKHI BELAR



Liburu eta diska azoka

DATORREN BARIKUAN, URRIAREN 16-AN EGUARDI ALDEAN INAUGURATUKO DUTE aurtengo Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Hilaren 25era arte zabalik egongo den azokak literatura eta musika arloko azken berritasunak esku-eskura ipiniko dizkigu, Untzagan egongo diren stand-etan. Urtero gurean egiten den azoka Euskadiko Liburu Azoken Batzordeak antolatzen du, Eibarko Udalak lagunduta.

EUSKARAREN

EUSKALTZAINDIK LAUROGEITA HAMAR URTE.

Oñatiko biltzarrak proposatu zuen orain dela ia mende bat beronen sorrera eta haren izatea Eusko Ikaskuntzaren bidez gauzatu zen, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako aldundiak bultzatzaile nagusiak iza zirela. Karmelo Etxegarai, Luis Eleizalde, R.M. Azkue, Julio Urkixo, Pierre Lhande eta Txomin Agirrek izan ziren lehenengo bilera hartan. Bitasunean mamitu zuen berea Euskaltzaindiak, alegia, Iker eta Jagon sailetan, eta hala dihardu lanean egun ere. Demokraziarekin batera, abiatu zituen bere egitasmo nagusiak: Orotariko Euskal Hiztegia eta Euskararen herri Hizkeren Atlas. Une honetako zuzendaritzan, Andres Urrutia (euskaltzainburua), Beñat Oihartzabal (bururordea), Xabier Kintana (idazkaria), Jose Luis Lizundia (diruzaina), Andoni Sagama (Iker sailburua) eta Andres Iñigo (Jagon sailburua) daude. Guztira, euskaltzain osoak 29 dira, euskaltzain urgazleak 152 eta beste 22 euskaltzain ohorezkoak.


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MADDI Barrutia Ugidos, hillairen 1ian urtetxua bete zendualako. Patxo handi bat famelixaren partez.




Zorionak, ALAITZ, bixar zortzi urte beteko dozuz-eta. Muxu handi bat famelixaren partez.



Zorionak, IZARO Fernández Azpiri, bixar urtia beteko dozulako. Aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, MARINA Ereña Ogiza, bixar bederatzirte egingo dozuz-eta. Famelix guztiaren partez. Aupa, potxola!



Zorionak, LEIRE, hillairen 7xan hamabi urte egin zenduazelako. Famelixaren partez.

zineafilmakzinea

9an, 22.00etan; 10ean, 17.00, 19.30 eta 22.30etan
11n, 17.00 eta 20.00etan; 12an, 20.30etan

coliseo 1

"Enemigos públicos"

Zuzendaria:

Michael Mann

Aktoreak:

Johnny Depp, Christian Bale, Marion Cotillard, Billy Crudup...

coliseo 2

"G-Force: licencia para espí"

Zuzendaria:

Hoyt Yeatman

Personaiak:

Darwin, Blaster, Juarez, Mooch, Speckles...

coliseo 3

"Agora"

Zuzendaria:


Alejandro Amenabar

Aktoreak:


Rachel Weisz, Max Minghella, Oscar Isaac, Ashaf Barhom...



FBI sortzear dago, J. Edgard Hoover-ek hori du helburu, baina aitzakia bat behar du. John Dillinger banku lapur ezagunenetakoa da; 'depresio handia'ren aroa bizi dute AEBetan eta jendeak heroizatzen du ia Dillinger. FBIrendako lehenengo kasu ezinhobea...



Akuriak baino ez direla pentsatuko dute askok, baina Darwin, Blaster, Juarez, Mooch eta Speckles oso akuri bereziak dira, Amerikako Estatu Batuetan lan egiten dute, gobernua dituen espio nagusiak dira, beti irabazten duten horietakoak...



Egipto erromatarren menpe dago IV. mendean. Erijiokoak sortzen dituen gatazkak Alejandriako liburutegi ezaguneraino ailegatu dira. Hipatia liburutegian dago gordeta, bertan dagoen altxorra zaindu nahian, Davo bere esklabuak lagunduta...

DENBORAPASAK

SUDOKUJA

			3	6				
		9		7				
	7	6			2			1
		1		9			3	2
		3	8	2	1			7
7					3	9		
		8	7	4				5
9			2		8		4	
4	2					3		

5	3	8	4	1	7	6	2	9
1	6	2	5	8	9	7	3	4
4	9	7	3	6	2	1	8	5
6	4	1	2	7	8	5	9	3
9	2	3	1	5	6	8	4	7
8	7	5	9	3	4	2	6	1
7	1	6	8	9	3	4	5	2
3	5	4	6	2	1	9	7	8
2	8	9	7	4	5	3	1	6

AURREKOAREN EMATZA

JAIOTAKOAK

- Nerea Bergaretxe López. 2009-IX-30.
- Ysdali Martínez Vizcaíno. 2009-IX-30.

HILDAKOAK

- Angeles López Martín. 87 urte. 2009-IX-30.
- Amadeo Porras Vicario. 79 urte. 2009-IX-30.
- Ricardo Ramos Novas. 74 urte. 2009-X-4.
- Asunción Maiora Yarza. 92 urte. 2009-X-4.
- Casimira Aierdi Aizpurua. 88 urte. 2009-X-4.
- Jose Luis Bartra Agirre. 59 urte. 2009-X-5.
- Narciso Conde De Dios. 58 urte. 2009-X-6.
- Ramon Sampayo Garrido. 72 urte. 2009-X-6.
- Mª Pilar Rojo Gutiérrez. 87 urte. 2009-X-6.

horoskopoa

ARIES

Noiz arte egongo zara itxaroten? Pazientzia handia daukazu, baina zerbait lortzeko esperantzak elikatzen du hori. Eta ezer lortu ezean, zer?

TAURUS

Lurpean sartu eta hortik denbora batez irten barik egotea nahiko duzu. A zer nolako lotsa pasako duzun. Horrelakoak egitea pentsatzea ere...

GEMINI

Lan asko egin beharko duzu datorren astean, baina fruitu onak jasoko dituzu ostean. Badakizu gauza onek esfortzu handia dutela aurretik.

CANCER

Arduratuta eduki zaitu kontu batek eta, konpontzen ez den bitartean, korapiloa izango duzu sabelean. Amaiera ona izango du guzti honek.

LEO

Ea noiz hasten zaren behar den moduan jaten, azken aldian txerrikeriak besterik ez dituzu jaten-eta. Zure gorputzak eskertuko du.

VIRGO

Erakargarri sentituko zara; erakargarri sentituko zaituzte besteeak. Zure xarmak inguruak gozotuko ditu eta aho zabalik izango dituzu denak.

LIBRA

Fede gehiago izan behar duzu aurrera daramatzazun gauzetan. Zuk konfiantzarik ez baduzu, nork izango du bada?

SCORPIUS

Ez zaitetz hain zazpikia izan. Zer kostatzen zaizu pixkat gehiago itxarotea? Badakizu, gainera, presak ez direla oso lagun onak.

SAGITTARIUS

Egunerokotasunean murgilduta gustura sentitzen zara, baina aspergura puntu batera iritsiko zara. Gauza berriak bilatzen saiatu zaitetz.

CAPRICORNIUS

Gehiegi kezkatzen zara tontakeriak diren gauzengatik. Eman behar duen garrantzia, ez gehiago, eta lasaitu zaitetz, estutzeak ez du merezi-eta.

AQUARIUS

Sagardo Egunaren biharamuna daukazu oraindik? Ederki pasa zenuen, jai giro bikainean. Trankil, hurrengo edizioa hurbilago dago!

PISCIS

Konfidantzazko lagun batek huts egingo dizu. Atzetik izango duzu barkamen eske, baina zuk... Hartu denbora pixka bat pentsatzeko.

Barixakua 9**ERAKUSKETA INAUGURAZIOA**

19.00.- Sostoa Abesbatzaren XXV. urteurrena erakusketaren inaugurazioa. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Zapatua 10**DANTZA**

17.00 eta 18.00.- Lodrikoko (Elirale). Dantza-antzerki ikuskizuna (1-8 urte umeendako). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz, irteera. Untzagatik abiatuta.

Martitzena 13**ZERO POBREZIA**

19.00.- Dokumentala: 'La 4ª Guerra Mundial', Zero Pobrezia kanpainaren barruan. Portalean.

Eguaztena 14**ZERO POBREZIA**

19.00.- Hitzaldia: 'Mujeres en tiempo de crisis', Mertxe Larrañaga EHUko irakaslearen eskutik, Zero Pobrezia kanpainaren barruan. Portalean.

diru-laguntzak

UMEAK ESKOLARA 2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984ko urtarrilaren 1etik 1993ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoak). Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

bekak

VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA. Ikerketa esparrua: Artea. Urriaren 11ra arte, Pegoran edo Portalean.

**DANTZA:**

'Lodrikoko'. Urriak 10, 17.00etan eta 18.00etan.

laster salgai**ANTZERKIA:**

'Ahuntza edo nor da Silvia?'. Urriak 16, 20.30etan.

JAZZ:

Miguel Salvador Project. Urriak 23, 20.30etan.

MUSIKA:

Omdrásek Czek Children Choir. Urriak 26, 20.30etan.

Peiyang Chorus. Urriak 29, 20.30etan.

Coro Infantil San Cugat. Urriak 30, 20.30etan.

Mixed Chamber Choir Krog. Azaroak 1, 20.30etan.

2009/10/28 OSTIALA	2009/10/29 LANEGUNA	2009/10/30 IZARRA	2009/10/31 ASTELEHENA	2009/11/01 ASTERENA

erakusketak

- **Urriaren 31ra arte**
ANGEL BOLUNBURUren argazki erakusketa.
Klub Deportivoan.
JOSE ANTONIO GONZALO HERNANDEZen argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
MIKEL OROZKOren argazki erakusketa.
El Ambigú tabernan.
- **Urriaren 13tik 15era arte**
'EMAKUMEEN AURPEGIAK' argazki erakusketa.
Untzaga jubilatutxean.
- **Urriaren 12tik 20ra arte**
CLEMENT-en argazki erakusketa. *Topalekuan.*
- **Urriaren 25era arte**
SOSTOA ABESBATZAren XXV. urteurrena.
Portalean.

ikastaroak

- **Espereintzia Eskola.**
Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 23ra arte, nagusiak@debegesa.com helbidera idatzita edo 943820110 telefonora deituta.
- **UEUko Udazkeneko ikastaroak.**
Izen-ematea eta informazioa: www.ueu.org helbidean edo 943821426 telefono zenbakian.
- **Berbetan.**
Izen-ematea eta informazioa: ...eta kitto! Elkartean (Urkizu, 11) edo 943200918 telefono zenbakian.
- **Itsas-patroi ikastaroa.**
Armeria Eskolan. Izen-ematea eta informazioa: Eguzki Jaia itsas akademia (www.eguzkijaia.com) edo 616175672 telefono zenbakian.
- **Argazkilaritza Digitala (hastapenak).**
Non eta noiz: Urriaren 19tik aurrera, astelehen eta eguaztenetan, 19.00etatik 21.30etara, Portalean. Izen-ematea: Urriaren 5etik 16ra, Pegoran.
- **Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa.**
Non eta noiz: Urriaren 26tik abenduaren 17ra arte, 15.00etatik 16.00etara, Ipuruko jubilatutxean. Izen-ematea: Urriaren 16ra arte. Pegoran.
- **Berdintasun harremanak.**
Non eta noiz: Azaroaren 2tik abenduaren 21era, astelehenetan, 18.00etatik 20.00etara, Andretxean. Izen-ematea: Urriaren 23ra arte. Pegoran.

famaziak

- 9, barixakua**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 10, zapatua**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 11, domeka**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 12, astelehena**
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 13, martitzena**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- 14, eguaztena**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)
- 15, eguena**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 16, barixakua**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

lehiaketak

- **Sanandresak 2009 kartel lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Urriak 22ra arte. Informazioa: Pegoran.
- **San Andres bertso-paper lehiaketa.**
Izen-ematea eta informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuartea) edo 943200918 telefono zenbakian.

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapateria: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapateria: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Asteleheneetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdio). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55-etik 21.55-etera orduerdio. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, jangela, komuna eta ganbara. Teilatu eta fatxada berriak. 200.000 euro. Tel. 627-635247.
– Amañako W. Orbean pisua salgai. 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Bal-koi bi. Eguzkitsua. 28.500.000 pta. Tel. 943-120254.

1.2. Errentan

– Osakidetzako langileak Eibarren logela hartuko luke alokairuan. Tel. 692-114352. Karmele.
– Bikote arduratsua Donostian pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 616-813097.
– Eibarren edo inguruan borda, txabola edo baserria alokatu edo erosiko nuke. Tel. 670-272714. Jon.
– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 628-789789.
– Emakume batek Eibarren edo Ermuan pisua hartuko luke alokairuan. Altzaririk gabe. Tel. 616-746257.
– Eibarren edo inguruan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 616-207343.

1.3. Konpartitzeko

– Gela alokagai Legarren, zentrotik gertu, etxean bi izateko. Kalefakzioa eta wifi. Tel. 620-633434.

1.4. Etxe-trukaketa

– Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegaineko geltoki parean) Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 m². Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea. Tel. 659-381317.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Opel Astra salgai. 56.000 km. 14 urte. 4.000 euro. Tel. 626-933850.
– Mercedes Sprinter furgoneta-etxea salgai. 4 lagunendako. Sukaldea, komuna, ohe bi, dutxa eta hozkailua. Berria. 40.000 euro. Tel. 656-768944.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Janaridenda lagatzen da erabilerarako. Tel. 649-744187.
– Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

– Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Apalekin. Prezio interesgarria. Tel. 630-391112.
– Urtzailen lokala alokagai (sotanoa). 66'80 m². Tel. 943-208555.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu, sukaldari laguntzaile edo tabernetan lan egiteko. Tel. 608-401590.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-132117.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 645-461600.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 636-252957.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 680-463892.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 616-397348.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 699-813826.
– Emakumea eskaintzen da goizez garbiketa lanetarako edo kamarera moduan. Tel. 625-048037.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.
– Haur Hezkuntza ikasle euskaldunak umeak zaindu litzake arratsalde. Esperientzia. Tel. 626-752117.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu, gaixoei gaua pasatu (ospitalean edo etxean) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 664-174654.
– Mutila eskaintzen da, gidatzeko C karnetarekin (makinista, atzerakako hondeamakina eta pala). Esperientzia. Tel. 627-611243.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-897639. Shirley.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 699-221092.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-018538.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko arratsalde eta gauz. Tel. 671-972733.
– Gizona eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 656-493864.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-962219.
– Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-474923 edo 943-171583.
– Gizona eskaintzen da obretan jarduteko (edozein lan). Tel. 671-358513.
– Neska eskaintzen da pertsonak zaintzeko. Interna. Tel. 697-381673.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 671-742142.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-711269.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 636-383471.
– Emakumea eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 669-966611 edo 664-881835.
– Emakume arduratsua eskaintzen da egunez edo gauz nagusiak ospitalean zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 660-073781.
– Emakumea eskaintzen da arratsalde, gauz eta asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 678-173847.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-938307.
– Gizona eskaintzen da igeltsero edo soldadore moduan eta garbiketa lanak egiteko. Tel. 616-809926.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-423898.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 648-603029.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 670-957709.
– Neska eskaintzen da umeak zaindu, kamarera moduan edo garbiketa lanetarako. Tel. 657-142376.

4.2. Langile bila

– Elgoibarko Izarra elkarteak euskera teknikaria behar du. Tel. 943-741746. Amaia.
– Laguntzailea behar da Ermuko hortziklinika baterako. 18.30etatik aurrera. Tel. 615-724810.
– ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– LH eta DBHko klase partikularrek ematen dira euskaraz. Tel. 636-252957.
– Euskarazko klase partikularrek ematen ditut, EGA eta perflak prestatzeko. Tel. 620-608065.
– Neska euskaldunak klase partikularrek emango litzuzke. Tel. 617-844142.
– Lizentziatuak Informatikako eta DBH-rainoko klaseak emango litzuzke. Larunbatetan ere bai. Tel. 659-651010.
– LH eta DBHko klase partikularrek ematen dira. Euskaraz. Tel. 650-871887.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Sukalde italiar bi salgai. Estreinatua ga-beak. %50eko deskontua. Tel. 656-756485 edo 656-723437.
– Erroberadun aukia erosiko nuke. Tel. 685-768857. Aurora.
– Bebe-car kapazoa eta silla salgai. Tel. 616-801304.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Irailaren 26an (zapatua) botoidun jertse beltza galdu nuen Bidebarrietan, San Andres eskolaren parean. Tel. 687-472084. Ane.
– Irailaren 11n konpromisoko aliantza galdu zen Bidebarrietan. Familia oroigarrria. Sarituko da. Tel. 630-876184.
– Irailaren 18ko arratsaldean lehen jaunartzeko gurutzadun katea galdu zen, Manterola eta Trinketeren artean. Sentimenduzko balorea. Tel. 943-031681.

**GURE WEB GUNEARI BIZITASUNA
FALTA OMEN ZITZAION, ETA JON
SARTU DUGU BARRUAN.**

gazte kutxa

Aholkulari pertsonala,
bizi-bizi eta surretz aurre,
behar duzun guztirako.

Telefono, bideokonferentzia
edo txat bidez.

10 etatik 10 etara
bezero izan nahiz ez
gazte kutxa.net

zer nahi duzu bihar?

"Bizi irakurri"

Eleberriak

%10eko deskontuak

Euskal diskagintza

Aukerako liburuak

*Euskadiko Liburu Ganbarak
antolatuta*

*Eusko Jaurlaritzaren eta Eibarko
Udalaren Kultura Sailek lagunduta*

URRIAREN

16tik



UNTZAGAN

25era

Eibarko Liburu Azoka



ordutegia

11.00 - 14.00

17.00 - 21.00

asteburuan

11.00 - 14.30

17.00 - 21.30

